



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari



Aita Zavala

Lizardik *Euskal Pizkundea* izeneko olerki zoragarrian amonaren (euskal tradizioa) heriotzaren berri ematen digu. Baina, amona ez ezik etxe-ko sukaldean ere hilik ikusten du. Orduan, sutondoko aulkiari ea amonaren ipuinik jaso duen itauntzen dio. Ezetz. Laratzari ere itaun bera. Honek ere ezetz. Erantzunon aurrean, 'auts gai era' belaunikatu, sutondoko hautsak pittinka urratu, eta ahor ezustearen goxoal: 'Sua bizirik dago! / Galduak ez gela!'. Une horretan, gazteak asmo sendoa hartuko du sukaldeko su hori iraunarazteko: 'Geroztik ari nazu / auts zaarrik astintzen; / aiton-amon guztien / ipuiak jasotzen; / erriaren pitxiak / magalean biltzen. / Ez baita il gure Erria, / zutitu gaitezen!'.

Eta Euskalerrria zutitu egin zen euskera eta euskal kulturaren alde. Tamalez, anai-arteko gerra zitalak bizitasunik barik utzi zuen berriro euskal sutondoa, hits, hotz. Baina, gerraurrean legez, sua ez zegoen guztiz amataturik. Edozelan ere, hauts azpian zirauen txingar ahulak iraungo bazuen, hauspoaren laguntzaren beharra zeukan, derrigorrez. Eta Aita Zavalak hil-aginean

zegoen euskal kultura xumeari *Auspoa* eskaini, eta *Auspoa*-k euskal sukaldeko su ahula bizitu egin zuen.


Bertsolari aldizkariak uda hone-tako alea oso-osorik eskaini dio Tolosako seme prestuari, berri ezin pozgarriago bat iragarritz. Izan ere, aurtongo udagoienera, Deustuko Unibertsitateak *Doctor honoris causa* izendatuko du Antonio Zavala, urte luzetan eginiko lan eskerga bezain ixila saritzeko asmoz. Hori eginik, gure ustez, euskal kulturak eta unibertsitateak, elkar besarkatuz, elkar aberasten dute, elkar osotu. Pizgarri izango ahal da elkartzeko hau unibertsitate mailako ikerketetan euskal kulturaren presentzia areagotzeko!

Menditik, *Basarte-ko unibersidatetik* Deustuko unibertsitatean joango zaizkigu Txirrita-eta, Pello Errota-eta, txapel berri bat janztera: 'Honoris kausa doktore txapela jartzeko didatenean, Txirrita, Ota o edo Uztapideri jarri diotela pentsatuko dut', diosku ohiko apaltasunez Aita Zavalak. Baina, gauza guztien gaitetik, urtetako koherentzia pertsonal sendoa sarituko da udagoienera Deustuko unibertsitatean, lanildo bat, ikerlari nekagaitz baten dedikazio etengabea. Aita Zavalak,

galtzear, ahaztear zegoen kultura herrikoi xumea lastategitik plazara atara gura izan zuen denon aberasgarri izan zedin, geuretik abiatuz eta geureari helduz, kultura zabalarri geure baitako aportazioa eskaini ahal izan geniezaion. Garena garela, garen apur hori onartu, ezagutu eta landu beharra dago, beraz, auzokari zer edo ha eskainiko badiogu. Izan ere, fijazio arriskutsua dakusa Aita Zavalak gure kulturaren inguruan, oraintsu, Bilintx bertsolari zorrigaitzokoari eskainitako berbalditxu baten esaten zuenez: 'Seta zoro orrek segitzen du gaur ere gure artean. Kanpoko dana ohea da. Kanpotarrak jotzen duten doi uarekin dantzatu bear degu. Aundia izan nai duan eta txikia danaren korapilloak dira oiek. Naiz aundi eta naiz txiki izan, edozein gizonak edo errik daukan leenengo eginbearra bere burua onartzea da, bai a dan bezelaxe' (*Zubizabal*, 1, 25.or.).

Agur eta ohore euskal kontalari, bertsolari eta idazle xume horiei! Agur eta ohore euskaldun xume horien kultura aintzakotzat hartu, eta altxor hori batzen eta ezagutazten bere bizitzako urterik one-nak eman dituen Antonio Zavalari! **I aki Sarriugarte** ¥ GALDAKAO (BIZKAIA)

galdeiozu...



Jose Anjel Iribar

ATHLETICEKO TEKNIKOA

Nola ikusten duzu egungo Athletic-Real derbietan jarraitzaileen artean dagoen harremana? Ba al du zu jokalaria zinen garaikoaren antzik? Eta jokalarien arteko harremanak?

Manex Zabala [Donostia]

■ **REALA** eta Athleticeko arteko harremanetan, jokalariai urtean bitan biltzen ginen mahai baten inguruan bazkari eder batekin elkar ezagutzeko. Getarian eta Eibarren bildu ohi ginen. Horrek harremana hobea izatea lortzen zuen. Gaur egun, ez da horrelakorik egiten. Garai batean harreman estuagoa zegoen. Dena den, azken urte honetan, Aitor Zabaletaren hilketak jokalaria eta zale askoren begiak ireki ditu, eta giro jatorragoa ikusi da azken derbietan.

Irailaren 14tik aurrera
Inaxio Oliveri • EUSKO
JAURLARITZAKO HEZKUNTZA
SAILBURUA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

